Orkestra
LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

LABURPEN EXEKUTIBOA
CUADERNOS ORKESTRA
12./2021
ISSN 2340-7638

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ESTRATEGIA: TRANTSIZIO HANDIETARAKO IKASKUNTZAK ETA ERRONKAK

Mari Jose Aranguren
Patricia Canto Farachala
Edurne Magro
Mikel Navarro Arancegui
James R. Wilson
Jesus Mari Valdaliso

2021

Laburpen Exekutiboa. Cuadernos Orkestra, 12./2021

© Egileak
© Lehiakortasunerako Euskal Institutua – Deusto Fundazioa

www.orkestra.deusto.es/eu/

Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren jarduna (Deustu Fundazioa, Deustuko Unibertsitatea) erakunde hauek laguntzen dute: Eusko Jaurlaritza, SPRI Taldea; Gipuzkoako Foru Aldundia; Bizkaiko Foru Aldundia; Arabako Foru Aldundia; Bilboko Udala; Repsol-Petronor; BBK Fundazioa; Iberdrola; Energiaren Euskal Erakundea.

Laburpen Exekutiboa

Euskal Autonomia Erkidegoak oinarri sendoak ditu hiru trantsizioei erantzuteko: demografia eta gizarte trantsizioa, energia eta ingurumenekoa, eta teknologiko-digitala. Oinarri horiek 1980-2008 aldian hasi zen eraikitzen. Urte horietan, garapen estrategiaren helburua lehiakortasun inklusiboa lortzea izan zen, faktore tradizionaletan lehiatzetik efizientzian eta berrikuntzan lehiatzera igarota. Ondoren, 2009-2020 aldian, lehiakortasun inklusiborako estrategia sendotu zen, baina, oraingoan, berrikuntzan oinarrituta eta helize hirukoitzaren maila askotako gobernantzaz lagunduta, Eusko Jaurlaritzaren lidergopean.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2009-2020 aldiko estrategiaren laburpena



Orain, Euskal Autonomia Erkidegoak oinarri horren gainean eraiki behar du, lehiakortasun inklusiboari eusteko eta hura areagotzeko, ziurtasunik eza ezaugarri duten trantsizio azkar eta disruptiboen garaian.

Estrategiaren zertarako?

Trantsizio jasangarriei erantzuteko funtsezko elementu bat garapen ekonomikoaren norabidea da. Hala, ezin dira garapen ekonomikoa eta gizarte eta ingurumen jasangarritasuna bereizi. Hori jakinik, Euskal Autonomia Erkidegoak elkartasunean oinarritutako lehiakortasun eredua indartu behar du, ekonomia suspertzeko estrategia inklusibo bat erabiliz, kontuan hartuta desberdintasuna handitzen ari dela Europan eta kolektibo jakin batzuetan, esate baterako, gazteen artean. Ekonomia eta gizarte jasangarritasunarekin batera, ingurumenaren jasangarritasunak ere garrantzia du. Hirurak estrategiaren ardatz nagusiak bihurtu behar dira.

Estrategiaren zer?

Trantsizioei erantzuteko, funtsezko lau elementurekin lan egin beharko dugu: espezializazio ekonomikoa eta zientifiko-teknologikoa, azpiegitura fisikoak, pertsonen gaitasunak eta lurraldeko egileak.

- **Espezializazio ekonomikoa eta zientifiko-teknologikoa**

  Azken hamarkadetan, apustu handiak egin dira bai ekonomia dibertsifikatzeko eta bai trantsizioekin lotura duten arloetan gaitasun zientifiko-teknologikoak sortzeko. Apustu horiek oinarri sendoa eskaintzen digute trantsizioei erantzuteko unean aukerak ere sortzeko. Hala ere, trantsizio handiek gizarte izaera agerikoa dutenez, beharrezkoa izango da teknologikoa ez den berrikuntza indartzea, berrikuntza estrategiaren barruan. Era berean, funtsezko ekonomia indartu eta dagokion balioa eman

beharko zaio, bektore gakoa baita pertsonen ongizatea bermatzeko, osasun sistema, hezkuntza sistema eta elikagaien sistema garatuta. Pertsonen ongizatea areagotuz, gainera, sektore guztien produktibitatea hobetuko dugu.

- **Azpiegitura fisikoak**

  Azken hamarkadan ahalegin handia egin da azpiegiturak sortzeko, bereziki trantsizioei lotutako zentro adimendunak, horien artean, Basque Digital Innovation Hub edo automobilgintzako, aeronautikako edo energiako fabrikazio aurreratuko zentroak. Azpiegitura horiek indargune garrantzitsuak dira. Baina garrantzitsua izango da eskaria ere aktibatzea, azpiegituren erabilera eta errentagarritasuna bermatzeko. Gainera, masa kritiko handiagoa lortzeko lagungarria izango da lankidetza bultzatzea, Akitania Berriak, Euskadik eta Nafarroak osatzen duten Euroeskualdean.

- **Pertsonen gaitasunak**

  Euskal Autonomia erkidegoan gaitasunen sistemaren eta haren etengabeko hobekuntzaren alde egin den apustuak ahalbidetuko du pertsonen gaitasunak trantsizioen beharrekin bat etortzea. Trantsizioek, gainera, gaitasun berriak lantzea eskatuko dute. Hala, lau alderditan egin beharko da lan: (i) etorkizuneko profilen beharrei aurrea hartu, profilak egokitu eta egongo direla ziurtatu; (ii) pertsonen lan ibilbidearen kudeaketa sofistikatua egin; (iii) lankidetzarako, lidergo kolektiborako eta aniztasun inguruneetan lan egiteko gaitasunak garatzen jarraitu; eta (iv) bizitzan zeharreko prestakuntza bultzatu.

- **Lurraldeko egileak**

  Euskal Autonomia erkidegoak bitarteko egileen sare zabala du, tartean Kluster Elkarteak eta Eskualdeko Garapen Agentziak direla. Trantsizioetarako garrantzi handikoa den jakintza duten enpresak ere baditu. Baina garrantzitsua izango da bertakoen osagarri izango diren enpresa gakoak gurera erakartzea. Nolanahi ere, erronka nagusia izango da aktore guztien arteko lankidetza indartzea eta aktore bakoitzak trantsizioei aurre egiteko egin dezakeen ekarpen bereizgarria argitzea.

Estrategiaren nola?

Trantsizioei erantzuteko, estrategia partekatu bat garatu behar da, erabiltzaileak eta gizarte zibila ere barne hartuko dituena. Euskal Autonomia Erkidegoaren indarguneak eta erronkak bi esparrutan bil ditzakegu: elkarlaneko gobernantza eta gaitasunak eta estrategiaren lidergo banatua.

- **Elkarlaneko gobernantza**

  Egile askotako eta maila askotako gobernantza ereduak aukera eman du Euskal Autonomia Erkidegoan estrategiak *bottom up* sortzeko. Oinarri egokia izan daiteke trantsizioen konplexutasunari erantzuteko. Baina, horretarako, behar-beharrezkoa izango da RIS3aren pilotatze taldeen arteko lankidetza bultzatzea eta helize hirukoitzetik laukoitzera igarotzea. Horrek eskatzen du unibertsitatearen, enpresa txiki eta ertainen, ekintzaileen, lan munduaren eta gizarte zibilaren egitekoa sendotzea.

- **Gaitasunak eta estrategiaren lidergo banatua**

  Azken hamarkadetan Euskal Autonomia Erkidegoan politiken komunitate bat sortzeko eta ikaskuntza eta malgutasuneko ikuspegi estrategikoa eskuratzeko garatu diren gaitasunak funtsezkoak dira trantsizioei erantzuteko. Hala ere, gaitasun horiek erregio eta erregioz azpiko mailan zabaldu, sakondu eta sofistikatu beharko dira eta haietan trantsizioetarako funtsezkoak diren egile gehiago integratu (ikerketa zentroak eta enpresa espezializatuak edo gizarte zibileko eragileak). Era berean, beharrezkoa izango da aurrea hartzeko gaitasuna lantzea, trantsizioei epe luzeko ikuspegitik erantzungo dien estrategia berritzailea landu ahal izateko.

Bere historian zehar, Euskal Autonomia Erkidegoak garatu duen estrategiak aukera eman dio gaur egungo lehiakortasunaren oinarriak ezartzeko. Hain zuzen ere, oinarri horiek balia ditzake orain hiru trantsizioei lotutako erronkei aurre egiteko. Identifikatutako erronken inguruan lan egiteak aukera emango dio lehiakortasunari eusteko eta hura areagotzeko, ziurtasun ezeko ingurune honetan.

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orkestra.deusto.es